

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foruzaingoak zerbitzu berezia egingo du larunbatean hasiko dira Tafallako jaietarako

Lapurretak prebenitzea, trafikoa zaintzea eta substantzia estupefazianteak hartzea eta adingabeei alkohola saltzea saihestea izango da egiteko nagusia

Viernes, 12 de agosto de 2011

Foruzaingoak zerbitzu berezia jarriko du abian larunbat honetatik datorren abuztuaren 20 arte Tafallako jaietarako. Horrela, 410 lan-txanda ezarriko dituzte hiri horretako Komisariako agenteetarako, sail hauen laguntza ere izango dutenak: Trafiko eta Bide Segurtasuna, Herritarren Segurtasuna, Jolas eta Ikuskizunen Brigada eta Interbentzioko Brigada Zentrala.

Zehazki, trafikoari dagokionez, 42 txanda egingo dira, Herritarren Segurtasunerako 144 txanda, Herritarren arretarako 14 txanda, Jolas eta Ikuskizunetarako 21 txanda eta Interbentzioko Brigada Zentralak 189 egingo ditu. Txanda horiekin zazpi jai-egunen ordutegi guztiak babestuko dira.

Zerbitzua Udaltzaingoaren eta Guardia Zibilaren laguntza egingo da, duela gutxi Segurtasunerako Toki Batzordean erabaki zuten moduan.

Poliziak 24 ordutan izango dira komisaria horretako Herritarren Arretarako Bulegoan, Tafallako epaitegien eraikineko beheko solairuetan. Instalazio horietan, salaketak aurkezteaz edo zuzenean edo telefonoz (112 edo 948-704265) arreta eskatzeaz gain, borondatezko alkoholemia-probak egin ahal izango ditu nahi duen edozein herritarrak, gidatzeko moduan dagoen ala ez jakiteko.

Foruzaingoak, aurkeztutako salaketak ikertuko ditu; trafikoa kontrolatuko du; herritarren segurtasunerako lanak egingo ditu (patruilatzea lapurreten kontra, genero-erasoak eta droga-trafikoa, nagusiki); zezen-festetan izango da eta Udaltzaingolari lagunduko dio jaiaren ekitaldietan (suziria, entzierroak edo entzierro txikiak).

Halaber, drogak aurkitzeko kontrolak egingo dira bereziki, estupefazianteen kontsumoak eraginda gidatzen ari diren zantzuak dituzten gidariei, trafiko-kontrolatan nahiz herritarren segurtasunerako kontrolatan.



Alkoholemia- eta bestelako droga-kontrolak egingo dira Tafallako jaietan

Trafikoari dagokionez, Udaltzaingoarekin eta Guardia Zibilarekin koordinatuta, goizean, arratsaldean eta gauean prebentzio-kontrolak egingo dituzte, hala nola alkoholemiakoa eta abiadurakoa, hirira sartzeko errepideetan.

Foruzaingoak patruilatu ere egingo du, uniformeaz edo kalez jantzita, Tafallako hiriguneko eremuetan, delituak edo administrazioko arau-hausteak prebenitzeko, hala nola droga-saleroketa eta borrokak.

Hori horrela, Foruzaingoa ostalaritzako eta aisialdiko lokalekin harremanetan jarri da, [lapurretak izaten badituzte jarraitu beharreko urratsak](#) jakinarazteko. Bestalde, adingabeei alkohola saltzearekin zerikusia duen informazioa ere bidali die.

Jolas eta Ikuskizunen Dibisioko polizia agintarien ordezkariaren lanak egingo dituzte jaietarako antolatutako zezen-ikuskizunetan, eta bildutako pertsonen segurtasunaz arduratuko dira. Halaber, Interbentzioko Brigada Zentraleko polizia ordena publikoaren gatazkarik balego launduko dute.